

# 44. Ingurumen Buletina



2018ko martxoa

1. Langileok ere erraustegia gelditu. Badago alternatiba.
2. Burujabetza energetiko ezak frackinga hobesten duen eredu jasanezina inposatzen digu
3. IPCCren arabera Parisko Akordioa ez da nahikoa klima aldaketa geldiarazteko
4. Euskal Herrian badira elefante zuriak
5. AHTren inguruko azken berriak eta ezinbesteko irakurketak



## 1. Langileok ere erraustegia gelditu. Badago alternatiba.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, gizartean dagoen kontrako jarrerari eta aurkeztu diren alternatibei kasurik egin gabe, Zubietako erraustegiaren proiektuarekin aurrera jarraitzea erabaki du. Hasi dira jada eraikuntza lanak. Gipuzkoako jendarteak dituen benetako beharrei erantzuteko behar diren ehunka milioi euro guztiz kaltegarria den azpiegitura hau eraikitzeke erabiliko dituzte. Onartezina.

Azken urteetan Gipuzkoan hondakinen kudeaketari dagokionez izan diren aurrerapausoak atzera egiteko bidean daude, izatez, gaikako bilketa sistemak aldatu diren herrietan, derrigorrez birziklatzetik hautazkoa izatera pasa denetan, gaikako bilketa eta birziklapen tasek behera egin dute modu esanguratsuan eta oso denbora gutxian. Erraustegia eraikitzen ari direnek hondakinak behar dituzte erraustegiaren negozioa borobila izateko, eta lehen pausua tasa hauek behera egitea da. Erraustegiak jana behar du.

Urteak daramatzagu errealitate hau salatzen, gutxi batzuen negozioa gipuzkoarron osasuna eta ingurumenaren gainetik jartzen ari direla eta herritarron beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak erraustegira bideratzen ari direla esanez. Langileok gai honetan ere badugu zer esana eta erabakietan parte hartzeko eskubidea, gure bizi eta lan baldintzetan eragina duen gaia baita hau.

Horregatik, urtea kanpaina sendo batekin hasi dugu. Otsaila eta martxoan zehar Gipuzkoako 200 lantokitan erraustegiaren aurkako atxikipenak jasotzen ari gara. Eta datorren martxoaren 20an lan munduko 400 ordezkariarekin erraustegiaren inguruko jardunaldi bat eta mobilizazioak antolatu ditugu.

• MARTXOAK 20 | DONOSTIA •

# LANGILEOK ERE ERRAUSTEGIA GELDITU!

*Badago alternatiba!*

**9:30**  
UNIBERTSITATEAN  
PIOTR BARCZAK PIOTR BARCZAK  
EUROKO INGIURUEN RESPONSABLE TECNICO  
BULEGOKO HONDAKINEN DE RESIDUOS DE LA OFICINA  
ARDURADUN TEKNIKOA DE MEDICAMENTO EUROPEA

**10:30**  
UNIBERTSITATEAN  
SINDIKATUEN MESA REDONDA  
MAHAI INGIURUA DE LOS SINDICATOS  
BANKASUNA ETA SALIDU LABORAL  
LANGILEON BIZI BALDINTZAK CONDICIONES LABORALES

**12:30**  
LAN-MUNDUKO CADENA HUMANA DE  
ERAGILEEN GIZA KATEA AGENTES DEL AMBITO LABORAL  
FORU ALDUNDIAREN ALLADO DE LA  
INGURUAN DIPUTACION

**18:00**  
SANTILMON  
"ANGULA USTELAK"  
AINHOA INTXAURRANDEIETA, IGOR MELCHOR, PIOTR BARCZAK

**19:30**  
GIZA KATEA CADENA HUMANA  
FORU ALDUNDIAN FRENTE LA DIPUTACION

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA. ELA. LAB. CCOO. ESK. STEILAS.  
EHNE. HIRU. COBAS. BIOLUR. BASERRI XXI. OLATUKOOP. DONOSTIA BIZIRIK

Badago alternatiba, hondakinen kudeaketa iraunkorra, birziklatuz, berrerabiliz eta murriztuz, Zero Zabor bidea jorratuko duen eredu. Dagoeneko demostratu da alternatiba erreal eta eraginkorra dela. Ingurumena eta pertsonak erdigunean jartzen dituen gizarte eredu berria beharrezkoa da.

## 2. Burujabetza energetiko ezak frackinga hobesten duen eredu jasanezina inposatzen digu

Epaitegi Konstituzionalak Frackingaren Aurkako Euskal Legea konstituzioaren aurkako deklaratu du eta hainbat artikulua bertan behera utzi ditu materia horretan eskumenik ez izateagatik.

Gogoratu behar da lege hau Herri Ekimen Legegile bati esker onartu zela, zeinak aldeko 100.000 sinaduratik gora jaso zituen eta Eusko Legebiltzarra berau onartzera eraman zuen.

Espainiar Estatuaren erantzunak argi uzten du energi eredu jasanezina hobesten duela, energia fosilak bultzatzean oinarritzen dena. Eredu hau pertsonak eta herriek zein energia kontsumitu eta sortuko dugun erabakitzekeo dugun, eta beharrezkoa den, energia burujabetzaren aurka doa. Energia berriztagarrien aurkako beste kolpe bat da, eta behin eta berriro baztertu ditugun energia iturri kaltegarriei atea irekita uzten die.



Politika hauen aurrean, ELAk energia kutsatzaileetan oinarrituriko egungo sistema energetiko injustuari aurre egiten eta horretarako ditugun alternatibak defendatzen eta beraietan parte hartzen jarraituko du. Alternatiba hauek sistema energetiko justu eta iraunkorra erabaki eta eraikitzen dute.

## 3. IPCCren arabera Parisko Akordioa ez da nahikoa klima aldaketa geldiarazteko

Esan dugu sarritan Parisko Akordioa ez dela nahikoa klima aldaketa geldiarazteko. Orain IPCCk konfirmatu du. Klima aldaketari buruzko nazioarteko talde honek Nazio Batuen klimaren inguruko Goibilerarentzat (COP) erreferentzia den txostena egiten du.

Txostenaren arabera, Parisko Akordioan 2030erako zehaztutako berotegi efektuko gasen (BEG) murrizketa konpromisoak ez dira nahikoak izango 2100ean 1,5°Cko beroketaren muga ez gainditzeko.

---

1960-2010 epean, 0,5°Cko beroketarekin, temperatura eta prezipitazioetan aldaketa handiak egon dira. 1,5°Ctik gora eta 2°Ctik beherako beroketarekin, ondorioak hauek izango dira:

- %10 egun gehiago muturreko temperaturekin.
- %25 ekosistema gehiago altueran edota latitudean mugitzera behartuak
- Estres hidrikoa %50 haziko da mundu mailan, mediterraneo inguruan gehiago
- Koral-hesi kantitate handiak desagertuko dira
- 100 milioi pertsonen desplazamendua.



Etorkizunerako eszenatoki honen aurrean, IPCCk ohartarazi du ezin dela gehiago atzeratu beharrezkoak diren neurriak hartzea, eta Parisko Akordioan hartutakoak baino anbiziotsuagoak izan behar direla. Ekonomiaren deskarbonizatzea ezinbestekoa dela dio txostenak. Sektore batzuk jada badihardute horretan, sektore elektrikoak adibidez, baina trantsizioa energetikoa ez da industrian edo nazioarteko garraioan ematen.

IPCCren arabera, 1,5°Cko beroketatik ez pasatzeko, kontsumitutako energiaren herena berriztagarria izan beharko litzateke 2030ean, bi heren 2050ean eta 2060an %100 berriztagarria izan beharko litzateke. Gainera energia gutxiago kontsumitu beharko genuke eta ahalik eta azkarren ikatzaren erabilera guztiz baztertu.

Txosten honek gainera gogorarazten digu geoingeniaritzak proposatutako karbonoa harrapatu eta biltegitratzea bezalako soluzio faltsuak baztertu egin behar direla, benetan beharrezkoak diren beste neurri batzuk ez hartzeko adabakiak baitira.

#### 4. Euskal Herrian badira elefante zuriak

Elefante zuriak deritze sortzen dituzten irabaziak baino mantenu koste handiagoak dituzten ondasunei, edo jabeei kalteak bakarrik eragiten dien arren beste batzuei irabaziak ekartzen dizkieten ondasunei.

Euskal Herrian badakigu zerbait honetaz. Eraikitzearen eraikitzen dutenen paradisua da, gizartearen beharrianak eta errentagarritasun ekonomikoa kontuan hartzen ez dituztenena, are gutxiago sortutako ingurumen kaltea.

Zentzugabea dirudien arren, inposatutako alferrikako azpiegituretara milaka milioi diru publiko bideratzea erabakitzen da, konpondu nahi dituzten arazoak zeintzuk diren eztabaidatu gabe. Eragin ekonomiko eta soziala aztertzen duten txostenik ez da egin. Euskal Herrian azpiegitura

hauen adibide asko ditugu zoritxarrez, baina AHT da gehienok sufritzen ditugun murrizketen lepotik gutxi batzuentzat onura bilatzen duten politiken adibide argiena.

ELA eta LAB sindikatuek hala eskatuta, Ekopolek (EHUn ekonomia ekologikoa eta ekologia politikoa aztertzen duen ikerketa taldea) eginiko Euskal Yari buruzko txostenak garbi azaltzen du EAEn eraikitzen ari diren Abiadura Handiko Trena zentzugabea dela.

Urteetan zehar salatu dugun bezala, Txostenak erakutsi du AHTk ez duela errentagarritasun ekonomiko eta sozialik, ingurumenean ondorio larriak eta atzera buelta ezinak izateaz gain.

Momentu honetan AHTren koste estimatua EAEn 10.000 milioi eurotakoa da. Diru honekin gauza asko egin daiteke. AHTra bideratu beharrean zergatik ez da bideratzen gizarte zerbitzuetara, hezkuntza, osasungintza edo gizarte laguntzetara? zertarako balio du pertsonen eta merkantzien mugikortasun beharrei erantzuten ez dien tren batek? Lehen esan bezala, gutxi batzuen onurarako eta beste askoren murrizketetarako.

Nafarroan AHTren lanak hasi berri dira baina intentzio bera dute. Nafarroako Gobernuak Rajoyren Gobernuarekin akordio bat sinatu nahi zuen AHTren eraikuntzarako. Baina espainiar Gobernuak akordio horretan ez sartzea erabaki du. Proiektu injustu eta antisozial bera izango da. EAEn erabilitako argudio berak balio dute Nafarroarako ere.

Euskal gizartearen zati handi bat prekarietate egoeran egon arren, gobernatzen gaituztenek diote hazkunde ekonomiko testuinguruan gaudela, eta egoera hori probestu nahi dute lehengo bidera eramateko: burbuila inmobiliario berria, errepide gehiago, abiadura handiko tren gehiago, erraustegi gehiago,... Azken finean, onura pribatu gehiago aurreko urteetako murrizketa sozialak ontzat emanaz. Agerikoa da alferrikako azpiegitura gehiagok murrizketa sozial gehiago ekarriko dituztela. Eredu hau onartezina da, honek eraman baikaitu behin eta berriro krisi berrietara, eta krisi hauek geroz eta modu injustu eta antisozialagoan bukatzen dira.

## 5. AHTren inguruko azken berriak eta ezinbesteko irakurketak

Badira aste batzuk Sustapen Ministroak AHTren inguruko azken erabakiak plazaratu zituenetik. Alde batetik, AHTk merkantziarik ez duela garraiatuko esan zuen. Hau duela urte askotatik dakigu eta behin eta berriro ari gara esaten. Askok izan dira kontrakoa sinestarazten saiatu direnak. Eusko Jaurlaritza esaterako, baina orain onartu dute hau horrela izango dela eta gaineratu dute ez duela aldaketa handirik suposatzen. Barkatu? Nahikoa bidaiari ez balira egongo merkantziak garraiatzeko behar dugula esaten ari zarete aspalditik! Bestalde, EAE eta Nafarroako ibilbideak Gasteizen elkartuko direla baieztatu dute, hau da, gaur egun existitzen den bidearen paralelo beste linea bat egitea da proposamena. Baina zertarako? Ez al da hobe dagoena hobetzea? Gainontzeko ibilbiderako ere balio duen irizpidea litzateke: dugun trenbide sistema hobetu, modernizatu, Europako zabaleretara egokitu eta pertsonen mugikortasun iraunkorraren zerbitzura jarri, eta ez negozio ezkutuen zerbitzura. Hauek izan dira ELAk beti defendatu izan dituen irizpideak AHTri alternatibak aurkezterakoan.

Eta hau horrela izanik azken urtean bi lan garrantzitsu egin ditugu. Batetik EHUko Ekopol taldeak [“Euskal Ya: irtenbiderik gabeko ataka”](#) txostena, buletin honetan aurretik aipatu duguna.

---

Txosten honetan AHTa ikuspuntu ezberdinetatik aztertu da (ekonomia, arlo soziala, ingurumena, arlo politikoa, kulturala,...) eta sekulako ondorioak atera dituzte. Irakurketa oso gomendagarria.

Bestalde, Manu Robles Arangiz Fundazioak Urko Apaolaza kazetariari AHTren obretan ematen den lan esplotazioari buruz liburu bat idazteko eskatu zion, eta baita modu bikainean egin ere. [“Zuloan. Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena”](#), hau ere ezinbesteko irakurketa.

